

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Behin betiko onestea Arratzua-Ubarrundiako udalerriko kontzejuen gastu orokorrak finantzatzeko funtsaren ordenantza arautzailea sortzeko espedientea

Espediente horri alegaziorik jarri ez zaionez, argitaratu egiten da, indarrean jar dadin.

Arratzua-Ubarrundiako udalerriko kontzejuen gastu orokorrak finantzatzeko funtsaren ordenantza arautzailea

1. artikulua. Oinarriak

Arratzua-Ubarrundiako udal mugartearen barruan nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna duten hamar kontzeju daude, eta nork bere lurraldean gauzatzen du bere jurisdikzio jarduna.

Kontzeju horiek eskumen jakin batzuk dituzte; hain zuzen ere, Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuen 11/1995 Foru Arauak, martxoaren 20koak, 7. artikuluan jasotakoak.

Beren eskumenak gauzatzeko, aipatutako foru arauaren 35. artikuluan zehazten diren baliabideak dituzte kontzejuak.

Gainera, orain arte, Arratzua-Ubarrundiako Udalaren dirulaguntzak jaso dituzte, nola gastu arruntak hala inbertsioak finantzatzeko. Kontzejuei emandako dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzan daude jasota zenbateko horiek.

Hala ere, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 17koak, 2.2 artikuluan dioenez, bere aplikazio eremuan ez dira sartzen administrazio publiko ezberdinen arteko diru ekarpenak, helburu duten administrazioaren jarduera osorik finantzatzekoak.

Horregatik guztiagatik, udal honek bereizi egin nahi ditu kontzejuei gastu orokorretarako egiten zaizkien ekarpenak eta obretarako edo inbertsioetarako ematen zaizkien dirulaguntzak, eta bakoitzak bere araudia izango du.

2. artikulua. Xedea

Ordenantza honen xedea da irizpideak eta arauak ezartzea, arautu ahal izateko Arratzua-Ubarrundiako kontzejuen jardueraren gastuak ordaintzeko udalak urtero onartutako aurrekontuan erakunde horiek duten partaidetza.

3. artikulua. Udalerriko kontzejuak

Hauek dira Arratzua-Ubarrundiako udalerriko kontzejuak, urteroko aurrekontutik diru kopuru bat jasoko dutenak:

- Arroiabeko Kontzejua
- Arzubiagako Kontzejua
- Betolatzako Kontzejua
- Durako Kontzejua
- Landako Kontzejua
- Lukuko Kontzejua
- Mendibilgo Kontzejua
- Uribarri-Ganboako Kontzejua
- Ziraoko Kontzejua
- Zurbaoko Kontzejua

4. artikulua. Ekarpenen izaera

Ordenantza hau aplikatuz udalerriko kontzejuek jasotzen dituzten zenbatekoak beren ogasunen ohiko diru sarreratzat joko dira, eta arautzen dituen araudiaren arabera dagozkien zerbitzuak sostengatu eta emateko erabiliko dira, bai eta kontzejuaren beraren ohiko antolamendu eta kudeaketa gastu arruntak finantzatzeko edo beste edozein jarduera egiteko ere.

5. artikulua. Ekarpenen guztizko zenbatekoa

Ekarpenen guztizko zenbatekoa 186.248 euro izango da. Kopuru hori urtero esleituko da udalaren aurrekontuetan, 943.434.000 partidan ("Kontzejuen gastu orokorrak"), hasieratik edo legez onesten diren aurrekontu aldaketen ondorioz.

6. artikulua. Kontzeju bakoitzarentzako ekarpenak kalkulatzeko

6.1. Ekarpenerak kalkulatzeko honako hau hartu da kontuan:

- Urteko funtsa: 186.248 euro.
- Biztanle kopurua: 992 biztanle (2019ko irailean).
- Etxebizitza kopurua: 503 (2017ko otsailean).

6.2. 186.248 euroko zenbateko hori hirutan zatituko da, eta honela banatuko da kontzejuen artean:

- 28.500 euro hamar kontzejuen artean hainbanatuta.
- 66.500 euro/503 = 132,20 euro/etxebizitza; kontzeju bakoitzak goian adierazitako datan zeukan etxebizitza kopuruaren arabera banatuko dira.
- 95.000/992= 95,76 euro/biztanle; kontzeju bakoitzak goian adierazitako datan zeukan biztanle kopuruaren arabera banatuko dira.

6.3. Kontzeju bakoitzak jasoko duen zenbatekoa:

KONTZEJUA	EKARPEN FINKOA	ALDAKORRA/ ETXEBIZITZA KOPURUA	ALDAKORRA/ BIZTANLE KOPURUA	GUZTIRA
Arroiabe	2.850	6.874,40	8.426,88	18.151,28
Arzubiaga	2.850	1.322,00	2.202,48	6.374,48
Betolatza	2.850	1.850,80	2.681,28	7.382,08
Dura	2.850	21.152,00	32.749,92	56.751,92
Landa	2.850	1.983,00	3.734,64	8.567,64
Luku	2.850	3.701,60	5.841,36	12.392,96
Mendibil	2.850	2.776,20	4.117,68	9.743,88
U-Garboia	2.850	7.535,40	7.373,52	17.758,92
Zirao	2.850	396,60	670,32	3.916,92
Zurbao	2.850	16.789,40	25.567,92	45.207,32

7. artikulua. Ekarpenerak ordaintzeko modua

Ekarpenerak urte bakoitzeko azken hiruhilekoan ordainduko dira.

8. artikulua. Kontzejuen betebeharrak

Kontzeju bakoitzak dagozkion urteko kontuak aurkeztu beharko ditu (gastuak, diru sarrerak eta kutxako izakinak), behar bezala onartuak, eta Arabako Foru Aldundiak eskatzen duen formatuan, betiere kontuei dagokien urtean ez eta hurrengoaren maiatzaren 1a baino lehen, edo, bestela, araudiz ezarritako datan. Eskatutako dokumentazioa aurkezten ez badu, kontzejuak ezingo du jaso dagokion zenbatekoa.

Gainera, kontzejuak egunean izan behar ditu udalarekiko zorren ordainketak. Bestela, kopuru horiek kenduko dira kontzejuari dagokion ekarpenetik.

Azken xedapena

Ordenantza hau, Udalbatzak behin betiko onetsi ondoren, oso-osorik argitaratuko da AL-
HAOn, bat etorritoki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2
artikuluaren ezarritakoarekin, eta indarrean sartuko da hamabost (15) egun balioduneko epean
iragarkia argitaratu eta biharamunetik aurrera, aipatutako legeak 65.2 artikuluan xedatu bezala.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Dura, 2020ko otsailaren 19a

Alkatea

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE